

Zenbat gara?

HASIER ETXEBERRIA



BENITO Lertxundik aluzinatuta behar du egon. Egun hauetan berriro jarri dute modan beste kantu zaharretako bat:

Zenbat gara, Lau, bat, iru, bost, zazpi? Zer egiten degu? Alkar jo? Zer egingo degu? Alkar ill? Ori ee! Ori ee!

Antonio Machinenak baino zaharragoak dira, nerretzat, Benitoren hitzak. Haatik gertatzen da harigarri, hainbeste urte pasatu ondoren, berriro Hit Paradearen lehen postuetan ikustea bere kantua. *Larrinaga da errudun.*

Sabino kaskaberoak esan zuen zazpi ginea. Gero jakin dugu ifarraldeko batzuk Munduko Lehen eta Bigarren Gerratean galdu zituztela seme eta alabak, irabazi zituztela dominak. *Mors pour la Patrie. Oraindik ez dakigu zenbat gara.* Hain baitira ezberdinak zenbaterako erak.

Hegoaldeko gure guraso analfabetoek, Gernikaren bonbaketaren ahozko poema beldurgarriez izorratu zizkiguten gauak eta egunak. Azoka egun batez Gernikan zen gertatu... Laboak ere, isilik egon ordez, musika jarri eta *xirristi mirristi, gerrena plat...* Lekicitoko bere hautzarotik zigun kantatu. Mekauen zotz.

Orain musika eta letra Larrinagak jartzen ditu, ordea. Lautik bat, gure indutrietatik bakarria salbatuko omen da konpetibitate europarearen erretakiti. Bravo, bravissimo! Isilduko ahal da, behingoz, mezularia? Arazoak konpondu eta aurrez abisuarren atzarnak eman ordez, bere langostino andaluzak ziuratu dituenen esaten du lautatik hiruk joan beharko duela kalera. Ba al daki zenbat gara? Lau, bat, hiru, bost, zazpi?

Gertakizun tristeetarako kontalari hobeak baditugu. Ez badaki ezer konpontzen eta konstatziorarako bakarrik badago, joan dadila, uno, dos, tres, bere lenteja lortu berriak kontatzen.

Lana non sal

TXILLARDEGI



BADIRUDI batzuk aspaldiko etzabada bat kalera nahi dutela. Alegia: «vasco es todo aquel que vende su fuerza

de trabajo en Euskadi». Gogoratzen zarete? Oso modan egon zen. Soziologia ekonomiko arazoa baldin bada, eta ez besterik ezer, egia zuten: non lana sal, non soldata kobera, eta hangotarra. Hangoa, hobe: 'tarra' etniko hori sartu gabe.

Baina nik zalantza handiak izan nituen orduan (eta orain ere bai, jakina). Zeren-eta nik bost urtez saldu bainuen Beljikan neure lan-indarra, eta ez bainintzen sekula hangotar senditu. Ez nik neure burua beljikan senditu, eta ez beljikan berek ni aberkideztat hartu. Bost urte hartan nik Bruselan neure lana eginagatik, euskaldun senditzen nintzen osotara, eta euskalduntzat (edo espainiarizat batzuk, sekula ez beljikanizat) hartzen ninduten besteak ere. Hemen, kondatzen zigutenez, ez bide da hori gertatzen...

Arago: zer esan behar da etxeko lanez besterik egiten ez duten etxeko-andreez? Senarra A-tarra eta emaztea B-tarra, omen. Eta hori bera ere... biek beren lan-indarra salduko duteno bakarrik. Arazo serioa da. Inor gutxi jar dezake zalantzan etorkinaren lan-eskubidea. Inor gutxi, era berean, ezkerretaren arlean bederen. *finkaturik* dagoen etorkinaren eskubide politikotarako eskubidea. Inor gutxi, era berean, bertakotzeko erabakia hartua duenaren edonolako eskubiderik.

Baina lan-indarra saltze hutsak ez du nazio-tasuna ematen. *Honegatik edo hartatik* deserrira doanak, jatorrizko sorlekutik ekarritako hizkuntza jai-ta-aste inposatu nahi badu, eta sorterritik ekarritako nazio-projektuari eutsi nahi badio, bere lan-indarra bizileku berriari salduagatik ere, lehengoaa da izateaz eta nahiaz. Atzerritar dago, eta atzerritar egon nahi du. Eta eskubide osoa du hauta hori egiteko, jakina.

Baina ondorioak oro atera behar ditu ausarki.

●egin

Atutxa, epaile politikoa

Atzo hainbat kazetariren aurrean Juan Maria Atutxak egin-dako agerraldiak begien bistan utzi du, berriro ere. Barne arazoetarako kontseilariaren harrokeria lotsagabea. Dirudienez, Atutxak epaileen gaineratik da goela uste du. Entzutegi Nazionalako magistratuak Txema Matanzas abokatuaren aurka jarduteko inolako delituri ez eta arrazoirik ere ikusi ez duen bitartean, kontseilariak aieruak egozten eta erruduntasunak atxikitzen jarraitzen du. Argi eta garbi epaile politikoen jokabidea.

Euskal presoekin jokatzeko ari dira, eta era gaiztoenaz gainera, bai Atutxa, bai EAJ eta baita Ajuria Eneko Itun gutzia ere, Corcuerearen eskutik. Madril estatu mailako koordinatza «antiterroristan» mugitzen den bitartean, badirudi EAJ gehiago bultzatzen duela frustrazio modu batek, hain zuzen hainbat urtetatik hona euskal presoekin kolektiboa apurtu eta elkarren aurka jartzearen egin dituen ahalginek porrot politikoa pertsonalen bat edo beste besterik ez dutela lortu ikusteak. Horregatik, ez dauka batere lotsarik neuri gogorenak aldeztiko eta

HEMEROTEKA



ITALIA



FRANCIA



ESPAÑA...

GALLEGO & REY / DIARIO 16

nahasketaren zeremoniarako —eta ez, hain zuzen ere, Antton Etxebersten dokumentua birlatzeagatik, argi gero bedia— laguntza emateko.

EDITORIALA

●DEIA

«Denon Artean» eta nahasian

Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko plataforman, «denon» deitu arren, daudenak daude: zazpi. Eta zazpi horietatik bakarren batek, tanpoia bakarrik du bere alboan, gaurerun. Beste bakarren batek, bere buruaren errainua, doi-doi. Plataforman horretan, jakina, ez daude irakaskuntzan ordezkartza eta eragin handi samarra

duten ELA, UGT eta CCOO sindikatuek. Plataforma horretan, beraz, daudenak daude. Eta nahasian. Ez dakite zeren alde dauden. Are okerrago, ezta nohen eta zeren kontra dauden ere. Baina asko diren itxura egin nahi dute. Eta pilaren distirak liluratu ditu EA eta EUE ere, beste alderdiren batzuetakoak zirenean egitasmo desberdinak zituztenak. Batak, kalean serio, nik bakarrik defenditu nuen ELKE eraman zuten Euskadiko Aldizkari Ofizialera EAJren botokien. Besteak, integratzaileko egitasmoa aurkeztu Eusko Legebiltzarrera.

Nik etsi nuen, jakina, EIKE martxan jartzen ez zela erreko erantzun baitzidan Konfederakundeko jaun eta jabe batek, ondotik «Confluencia»ko legean ezabatzeko. Hari mundu guztiak muzin egin zionez eta euskal

eskola publiko bakarra ahobatez eskatzen zenez, hiru gobernu-deek, egin zitekeen onena egin dutelakoan nago, sokaren alde batean eta bestean dauden indarren oreka lortu baitute. Jakina, ez alde batera tiratzen dutenak eta ez bestera tiratzen dutenak daude erabat gustora, baina ez dira oreka hobierik eta konponbide hobierik lortzeko gauza, plataformak plataforma eta manifestaldiak manifestaldi. Eta aldi luzean, hobierik espero ez dudanez, ikastolek askatasun eta bake osoz eta modurik onena egin dezatela pribaturako ala publikorako aukera nahiko nuke. Denak pribatura edo denak publikorako beharrezake haserrea besterik ez du sortuko zenbait ikastolatan. Eta haserrea da edozein ikastola hondatzeko biderik onena.

M. ATXAGA

ZUZENDARIARI

Xabier Arzalluzen hitzaldia

Xabier Arzalluzek eginiko hitzaldiaren ondorenean zenbait politikoa eta komunikabidek eginiko manipulazioaren aurrean, Tolosako EGIK zenbait gauza argitu nahi zituzte.

Xabier Arzalluzek esan zuen bezela, nazionalitate bakoitzak du bere izakera berezia. Euskaldunok dugun hizkuntza, historia, ohiturak; azken finean nortasuna da desberdintzen gaituena beste edozein nazionalitatearekiko. Ez dago esan beharrik guzti honek ez gaituena besteak baino hobeago edo okerrago egiten. Norik uka dezake guzti hau?

Hau horrela bada, non dago Xabier Arzalluzen hitzaldiaren akatsa? Odolaren aipamenean? Gure herriaz kanpokoak jaun eta

jabe egitearen ukamenean?

Ez al da izango jabe egin nahi duten hoiak asaldatu egiten direla herri zahar honek bere eskubide eta nortasunari inoiz uko egingo ez diola jakitean?

Dirudienez badaude Madril aldean zenbait komunikabide guzti hori zalantzan jartzen duenak, baina hortara ohituta gaude. Aldiz, bere burua abertzaleztat jotzen duten hoiaren komentarioak dira guretzat kezka-garri, sinestezina baita nola jarri ditekkeen zalantzan gure herriaren nortasuna interes politikoengatik.

EGI

Tolosa (Gipuzkoa)

Gora Ikastola!

Hemen Euskaldun izatea bezalako guda-

ririk ez dago.

Hemen euskaraz irakurri eta euskaraz idaztea bezalako iraultzarrik ez dago.

Hemen euskara indartzea bezalako indar politikorik ez dago.

Hemen ez dago euskara adinako desafiotorik inperio zurrupariaren aurka.

Hemen ez dago euskara adinako askatasunaren aldeko itxarobiderik.

Guzi honengatik gaur Bilbon ospatuko den manifestaldira eta 'Ley de la Escuela Publica Vasca' delakoaren aurkako ekitaldi guztiyera joaten animatzen zaituztegu.

Hau al duk Euskal Eskola Publikoa? Gora Ikastola!

KOLDO MITXELENA INSTITUKO IKASLEEN ASANTBLADA

Gasteiz

GAIA JARRITA

Hezkuntza gatazka

Buesaren lege hori izanik kaxkarrta, luza dezagun Bilbon gure deiardarra. Gasteizen onartzeko hain Proiektu txarra, non da Jaurilaritzaren abertzale harra? Non, euskal Alderdiak daukaten indarra? PSOE ez da hemen errudun bakarra.

MIKEL MENDIZABAL

Egunkaria

Batzorde Parakidea: 725641 / Lege Gortidulari: SS 800/90

OJ-DREN IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
 Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: ISAKI URUA

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEHARRERIA
 Zuzendari Komertzialak: JUAN INAZO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HEL BIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02
 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziale, Publizitate eta Administrazioa: Antso Jakintuna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroak: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iñeña / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxiatila, / 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11